



2000KO MARTXOAREN 7KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi milako martxoaren zazpian, iluntzeko zazpian, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Julio Ibañez Urteaga, Jon Agirre Garmendia, eta Jose Antonio Dopazo Martin.

Jose Luis Otamendi Romero zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Urko Irastortza Aldanondo zinegotzia bertarutzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren esaten du atzo gertatutako atentatuaren au-rreren EAJ-PNV eta EA koalizioak Osoko Bilkura honek mozio bat tratatu dezan nahiko lukeela eta presakazko izaeraz puntu hau gaurko batzaraldian tratatzea planteatzen dutela.

Guztiek beren adostasuna ematen diote mozio hau presakazko izaeraz gaurko batza-rraldian tratatzaari.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2000ko urtarrilaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpe-nen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Urko Irastortza Aldanondo zinegotzia bertarutzen da.

III.- 1999KO AURREKONTUKO KREDITU TRANSFERENTZI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDI-TU ALDAKETA.-

Udalaren 1.999ko Aurrekontu kreditu transferentzia bidezko kreditu aldaketa es-pedientea ikusirik.

Idazkari-Kontuhartzaileak formulatutako aldeko txostena eta espedientean eginda-ko gainerako iharduketak ikusi ondoren, Alkatezta honek

...///...

...///...

ZERA EBAZTEN DU

Lehenik.- Lazkaoko Udal honen Aurrekontuari dagokion eta proposamenean zere errendatzen diren gastuen aurrekontuko partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)

Kap.	Izendapena	Hasierako Kreditua	Gutxipena	Amaierako Kreditua
1	Pertsonal Gastuak	124.590.337,-	8.840.804,-	115.749.533,-
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzt.	155.023.412,-	15.965.121,-	139.058.291,-
3	Finantza Gastuak	6.500.000,-	3.426.664,-	3.073.336,-
4	Transferentzi arruntak	60.794.830,-	8.886.441,-	51.908.389,-
6	Inbertsio errealak	189.657.474,-	26.508.355,-	163.149.119,-
9	Finantza Pasiboak	18.000.000,-	5.453.525,-	12.546.475,-
GUZTIRA		554.566.053,-	69.080.910,-	485.485.143,-

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)

Kap.	Izendapena	Hasierako Kreditua	Gehikuntza	Amaierako Kreditua
1	Pertsonal Gastuak	115.749.533,-	17.840.453,-	133.589.986,-
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzt.	139.058.291,-	23.451.172,-	162.509.463,-
3	Finantza Gastuak	3.073.336,-	92.526,-	3.165.862,-
4	Transferentzi arruntak	51.908.389,-	4.045.260,-	55.953.649,-
6	Inbertsio errealak	165.894.063,-	23.543.986,-	189.438.049,-
7	Kapital Transferentziak	2.383.545,-	7.513,-	2.391.058,-
8	Finantza Aktiboak		100.000,-	100.000,-
GUZTIRA		478.067.157,-	69.080.910,-	547.148.067,-

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa den ezkerro, bidezkoa da onetsitako aldaketa Fondoan Kontuhartzaitza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten, Gastuetan zein Sarreretan.

IV.- ERREKLAMAZIO EKONOMI-ADMINISTRATIBOA "CONFEDERACIÓN HIDROGRÁFICA DEL NORTE"KO PRESIDENTEAREN EBAZPENAREN AURREAN.-

Toki Erregimeneko Legedian dioena betez, Alkateak Oviedoko Ekonomiko-Administratiboaren Epaimahaiaren aurrean aurkeztutako erreklamazioaren berri ematen du. Erreklamazio hau Ur Konfederakuntzak Udalarik likidatu dion 1998 urteko Isurketa Kanonaren aurrean egiten da, 1995ko urtetik aurrera Udalak Ur Kontsorzioari Finantziario Kanona ordaintzen diola eta Isurketa Kanona ordaindu beharrik ez dagoela ulertzen duelako egiten dela gaineratzen du.

...///...



...///...

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

V.- UDALETXEKO ERASKINAREN OBRA ZERTIFIKAZIOA.-

Obra zuzendaritza eraman duen Juan Jose Garmendia Soria Arkitektoak izenpetuta eta Udal teknikariek ontzat emanik, bere onarpenerako aurkezten da Osoko Bilkurara, Udaletxeari erantsintako eraikinaren bigarren zertifikazioa, obraren azkena dena.

Zertifikazio honen zenbatekoa berrogeita hamasei milioi hogeita zazpi mila hirurehun eta laurogeita sei (56.027.386,-) pesetatakoa da eta lanak burutu dituen enpresa berriz Sukia Eraikuntzak, S.A..

Osoko Bilkurak, zertifikazio hau aztertu ondoren, bertaratutako guztien adostasunez, berau onartzea erabakitzen du.

VI.- EUSKADI PLAZAKO ASFALTATUA AURREKONTUAN SARTZEKO KONPROMEZUA.-

Alkateak Euskadi Plazako asfaltatua egitearen premia agertzen du, gaineratzen du gaur gaurkoz aparkaleku bezala utziko litzatekela. Lanen aurrekontua hamar milioitakoa (10.000.000,-) da, eta aurtengo aurrekontua oraindik onartu gabe dagoenez, hau onartzen denean partida hau sartua izango dela konpromezua hartzea eskatzen du, honela obra burutu ahal izateko.

Une honetan Urko Irastortza aretotik irten egiten da.

Jose Antonio Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du bera ez dagoela gai hau aurrera eramatearen aurka baina martxoan gaudela eta oraindik aurtengo aurrekonturik ez dela aurkeztu, eta bere zalantzak dituela lege aldetik ere, proposatzen dena egin ote daitekeen eta bera ez dihoala bere botoa konprometitzea.

Alkateak erantzuten dio aurrekontuei buruz eztabaidatzeko bilera batetarako deia egin zuela lau urtetarako plangintza bat egiteko eta etorri zirenei aurrekontu zirriborro bat aurkeztu zitzaizela.

Inazio Estensoro zinegotziak, Hazienda Batzordeko Presidenteak, esaten du apirileko osoko bilkura baino lehen aurkezteko konpromezua hartzen duela. Legezketasunari buruz Idazkari-Kontuhartzaileari txosten bat eskatzea proposatzen du, eta txosten honen arabera aurrera egitea edo ez.

Honen aurrean, Alkateak esaten du aurrez gaiari buruzko Idazkari-Kontuhartzailearen legezketasun txostena egingo dela eta legez egin daitekela ondorioztatzen bada egin egingo dela eta bestela ezetz.

Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ-PNV, EA, EH) eta aurkako botu batez (PSE-EE) proposamena onartu egiten du.

...///...

...///...

VII.- KIROLDEGIKO ASTEBUKAERATAKO ZERBITZUA.-

Alkatea eta Kiroletako zinegotzia den Igor Sarriegik gaiaren azalpena egiten dute. Esaten dute iaz lan sustapeneko programa bidez 2 pertsonak eman zutela astebukaeratako Kiroldegiko zerbitzua. Aurten aukera hori ezinezkoa denez astegunetan zerbitzua ematen duen enpresari eskeini zaio astebukaeratakoa ere ematea. Enpresa hau astebukaeratako zerbitzua emateko prest agertu da.

Zerbitzu honek orduko bi mila (2.000,-) pta. gehi B.E.Z.eko kostua izango luke, urtean 1.150 ordu, guztira bi miloi terdi inguru izanik.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez, astebukaeratako Kiroldegiko zerbitzua astegunetako ere ematen duen Goierriko Kirok Tenikariak enpresari esleitzea erabakitzen du, aipatutako prezioetan.

VIII.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN DIRULAGUNTZA.-

Gaur egun Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko dirulaguntza orduko 875,- pta.tan finkatuta dago, 975,- pta. jai egunetan, eta 2000 urteko urtarrilaren 1 datatik hasita ondorioak izan ditzan 25,- pta.ko igoera planteatzen da, hau da, 900,- pta. orduko eta 1.000,- pta. jai egunetako ordua baldin bada.

Bestalde gaur egun erabailtzen diren baremoen birraztertze eta eguneratze baten beharra ikusten dela azpimarratzen da baita ere eta hori ere aztertzen hasia planteatzen da.

Irantzu Amundarain zinegotziak (EH) esaten du zerbitzua ematen duten langileen egoera ikusita beraiek ordua 1.000,- pta. jartzearen aldekoak direla.

Alkateak erantzuten dio esanez gaur gaurkoz KPIren igoeraren antzekoa izan litekeen igoera bat onartu eta erizpideak edo baremoak behar bezala jarritakoan orduaren dirulaguntza berrikustea egokiagoa iruditzen zaiola.

Une honetan Urko Irastortza zinegotzia sartu da berriro ere aretora.

Arantxa Zumelaga zinegotziak, Gizarte Zerbitzuak Batzordeko presidente gisa, esaten du asmoa baremo azterketa hori lehen bait lehen egiten hastekoa dela eta emaitzak 2000ko urtarrilaren 1 datatik aplikatuko liratekela.

Guzti honen ondoren, gai bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien adostasunarekin. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak onartu egiten ditu.

IX.- DISPONIBILITATE BEREZIAREN BERRIKUSKAKETA.-

Inazio Estensoro zinegotziak, Hazienda eta Pertsonal Batzordeko Presidente gisa, gaiaren azalpena egiten du. Esaten du disponibilitate berezia ezartzearena iaz onartu zela eta beti ere urtea igarotakoan berrikuskaketa egitearen konpromezuarekin. Gaineratzen du hori horrela, berrikuskaketa hau egin dela eta ondorioz mantenimendu eta obretako lanpostuetan orduen igoera nabarmendu dela. Lanpostu hauetan lehen oinarritzat hartutako orduak eta berrikuskaketan azaldu direnak honako hauek dira

...///...



...///...

Lanpostua	Orduak lehen	Orduak orain
Mantenimendu lanpostua	60	84
Mantenimendu/lurperatzailea	50	131,5
Obra eta Zerbitzu Enkargatua	65	105

Bestalde eta iaz jarritako oinarriekiko gaueko orduei tratamendu berezi bat ematearen beharra nabarmendu da eta ordu hauek bakoitza bat eta erdi disfrutatzea planteatu zen.

Hau honela, proposatzen dena zera da: iaz hartutako akordioan mantenimendu eta obretako lanpostuetan ordu berri hauen arabera aldaketa egitea eta bestalde gaueko orduak ordu bete bakoitzeko ordu terdi disfrutatzea.

Gaineratzen du gai hau langileen ordezkariekin eta Pertsonaleko Batzordeak landua izan dela eta ondoren langileen asanbleari guztiaren berri eman zaiola.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako guztien adostasunarekin, disonibilitate bereziaren berrikuskaketa hau onartu egiten du.

X.- 2000 URTEKO LAN EGUTEGIA.-

2000 urteko Udaleko langileen lan-egutegiak eginak daude eta aurreko urteetatik dauden aldaketak honako hauek dira: brigadak zubiak zubi egitea planteatzen du baina pre-miazko lanen bat sortuko balitz etortzeko konpromezuarekin; kultur teknikariak disonibilitate berezi kontzeptuan sartzen dituen orduetatik egunero ordu bete disfrutatzen du eta hauetatik 50 ordu berak aukeratutakoan disfrutatzea planteatu du lan egutegia horretara egokituz.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien adostasunez, 2000 urteko Lazkaoko Udalaren langileen lan egutegiak onartu egiten ditu.

XI.- BRIGADAKO LANGILEEN ORDEZKAKETAK EGITEKO LAN-POLTSA SORTZEA.-

Obra eta Zerbitzuetako Brigadan sortzen diren ez-usteak direla eta ordezkaketarako behar baiten beharra ikusten da eta hau horrela lan-poltsa sortzea planteatzen da.

Gaia langileen ordezkariekin eta Pertsonal Batzordean aztertu da eta proposatzen dena zera da:

Lan-poltsa hau sortzeko herrian deialdi irekia egitea, kalean iragarkiak jarriz eta egunkarietako Lazkaoko herriko kroniketan honen berri emanaz.

Eskatuko liratekeen baldintzak honako hauek dira: Lazkaotarra izatea eta 18 urtez gorakoa.

Izena ematen dutenei froga psikotekniko bat eta elkarrizketa egingo lieke T.S.I. enpresak.

...///...

...///...

Lan-poltsa honek bi urtetarako balioko luke.

Jose Antonio Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du zentsu bat badagoela lehendik ere eta bestalde esaten du berak egitekotan hau lanpostu guztietara zabalduko lukeela.

Inazio Estensoro zinegotziak (EAJ/PNV) erantzuten dio hasteko lanpostu honetan egi-tea planteatzen dela eta honekin zer gertatzen denaren arabera ikusiko dela gero zer egin.

Jon Agirre zinegotziak (EH) esaten du baldintza bezala ez bada ere meritu bezala behintzat éuskararena jartzea planteatuko lukeela.

Inazio Estensorok erantzuten dio berak lanpostu honetarako ez lukeela jarriko.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako guztien adostasunarekin, lan-poltsa sortzearen proposamen hau onartu egiten du.

XII.- ARKITEKTO TEKNIKO PLAZA SORTZEA.-

Udal honetan arkitekto tekniko lanpostu bat dago lan-hitzarmeneko lanpostu gisa definituta.

Lanpostu hau gaur egun okupatzen duen pertsonak datorren urtean beteko ditu 65 urte eta ondorioz jubilatuko da.

Hau honela izanik eta arkitekto tekniko lanpostua funtzionari lanpostu bezala definitzea egokiagoa izanik, zera planteatzen da:

Lazkaoko Udalaren funtzionari plantillan arkitekto tekniko plaza baten sorrera. Plaza honen ezaugarriak honako hauek izango lirarteke:

<u>IZENA:</u>	ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA, ARKITEKTO TEKNIKO
<u>DEDIKAZIO ERREJIMENA:</u>	LANALDI OSORAKO
<u>HIZKUNTZ ESKAKIZUNA:</u>	3
<u>ESKALA:</u>	ADMINISTRAZIO BEREZIA
<u>AZPIESKALA:</u>	AZPIESKALA TEKNIKO
<u>MOTA:</u>	ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
<u>ESPEZIALITATEA:</u>	ARKITEKTO TEKNIKO
<u>SAILKAPEN TALDEA:</u>	B
<u>ORDAINSARI MAILA:</u>	EFAULEBAREN 18. MAILA
<u>BETETZE SISTEMA:</u>	LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ

Esan behar da baita ere lanpostu hori okupatzen duen pertsona jubilatzen denean, lehendik lan-hitzarmeneko bezala dagoen arkitekto tekniko lanpostua amortizatu egingo dela.

Osoko Bilkurak, bertaratutako gutien adostasunez, proposamena onartu egiten du.

...///...



...///...

XIII.- EUSKAL HERRITARROKEN MOZIOA.-

Moziok honela dio:

“RUBEN GARATEren HERIOTZAREN INGURUKO DEKLARAZIO INSTITUZIONALA

Alcala-Meco dagoen euskal preso politikoa bisitatzetik Euskal Herrira bueltan zeto-
rren eta istripuan hil zen Ruben Garate Otxandioko herritarraren heriotza dela eta, honako
hau adierazi nahi dugu:

1. Ruben Garate esapiniar frantziar gobernuek euskal presoan aurka diseinaturiko sakabanaketa politikaren biktima berria da. Udal honek bere dolumina eta elkar-tasuna adierazi nahi die Ruben Garateren senideei.
2. Euskal presoan aurkako sakabanaketa politika, pertsonaren duintasunaren aurka eraso egiteaz gain, sufrimendua, krispazioa eta krudelkeria eraginez, presoan se-nide eta lagunen aurkako zigor gehigarriaren adierazpena da.
3. Euskal Presoak, abagadune edo interes politikoaren baitan, negoziaketa, truke edo instrumentalizaziorik jasan ezin dezaketen eskubideen jabe dira.
4. Euskal Herrian zabalduriko prozesu politikoan euskal presoan partehartzeak, el-karrizketa eta negoziazioaren bidea azkartuko duela adierazten dugu.
5. Euskal Presoek gutxiengo eskubidearekiko, hala nola, Euskal Herriaren gehien-goak demokratikoki adierazitako borondatearekiko gobernu espainiar eta frantzia-rrak erakutsitako errespeturik eza eta gutxiestearen ondorio atzeraezin eta larria da Ruben Garateren heriotza.
6. Euskal presoan sakabanaketa politikaren bukaeraren aldeko apustua egiten dugu-nok, euskal gizarteak hainbat aldiz adierazitako borondatea errespetaraziko duen bitartekoak aktibatzeko ardura hartzen dugu guren gain.”

Inazio Estensoro zinegotziak (EAJ/PNV) esaten du onarpena emango diela mozio honi.

Jose Antonio Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du moziolari heltzeko garaian alde batetik, koiunturalki, pena ematen diola orain dela egun gutxi, Fernando Buesa eta bere eskoltaren heriotzaren aurrean bozeramaile batzordean EHk hura ez zuela gaitzetsi ikusteak. Gaineratzen du EHren jarrera horri erantzun bera ematea besterik ezin duela egin eta beraz ez duela mozia babestuko. Esaten du baita ere sakabanaketaren aurka dagoela eta hala da-gokionean legea behar den bezala aplikatua izan dadin eskatzen duela eta horregatik ez diola ezetzik esango mozio honi.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ/PNV, EA, EH), aurkako bo-turik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE) mozia onartu egiten du.

...///...



...///...

XIV.- EA-EAJ/PNV-REN MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Atzo Donostiako Intxaurrondo auzoan izandako atentatuaren aurrean zera adierazi nahi dugu:

Gure gaitzespena adierazi era honetako ekintzen aurrean.

Gure elkartasuna adierazi atentatuan gertatutako zaurituei.

Egungo egoeraren aurrean irtenbidea bakarra elkarrizketan sakontzea denaren gure konbentzimentua adierazi.

Gure jarrera publikoa egin."

Irantzu Amundarain zinegotziak (EH) esaten du orain artean horrelako ekintzak gaitzetsi ez dituzten bezala hau ere ez dutela gaitzetsik. Gaineratzen du irtenbidea elkarrizketa dela eta iruditzen zaiela gaitzestearekin ez dela ezer konpontzen eta horregatik abstenitu egingo direla.

Jose Antonio Dopazo zinegotziak esaten du biktimekiko keinu bat dela . Askozaz ere kontudenteagoa izan zitekeela baina funtsezkoa gaitzespena dela eta horregatik mozioaren alde bozkatuko duela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ/PNV, EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (EH), mozioa onartu egiten du.

XV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak, Orobioneren inguruko berri ematen du. Esaten du Eusko jaurlaritzak ordezkatzeko ordenantza bat egiteko espedientea martxan jarri duela eta prozesu honek 4 bat hilabete beharko duela alegaziorik egon ezean behintzat.

Irantzu Amundarain zinegotziak (EH) Kiroldegian eta Kultur Etxean euskeraren erabilerari buruz galdetzen du, ea euskararen erabilpenaren jarraipenik egiten al den eta Kiroldegiari buruz kexa batzu izan dituztela gaineratzen du.

Igor Sarriegi zinegotziak, Kiroletako arduradun gisa, galdera kontutan hartzen duela eta horri buruz informazioa biltzen saiatuko dela erantzuten dio.

Irantzu Amundarain zinegotziak Belen Gonzalezi buruz zer berri dagoen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio berak dakiena, eta EHkoen esanda gainera, gose greban dagoela dela.

Urko Irastortza zinegotziak bozeramaile batzordearen funtzionamenduari buruz galdetzen du.

Hori Udalaren Arautegi Organikoan jasotzen dela erantzuten zaio.

...///...



...///...

XVI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko bederatzia eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

